

Herrialdea

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

Kongoko
erritmora



Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED) Afrikako bigarren herrialde handiena da, eta 2.345.400 km² zein 26 probintzia ditu. Bertako hiriburua Kinshasa da, eta honako bederatzi herrialde hauek ditu mugakide: Hegoaldeko Sudan, Erdialdeko Afrikako Errepublika, Burundi, Uganda, Ruanda, Tanzania, Kongoko Errepublika, Angola eta Zambia.

Herrialdean egindako azken errolda 1984. urtekoa da, eta, zenbatespenen arabera, gaur egungo biztanleen kopurua 77,8 milioi lagunekoa da. Herrialdeko biztanleen artean, ehunka talde etniko daude. Frantsesa hizkuntza ofiziala da, baina, era berean, honako hizkuntza bantu hauek ere badira hizkuntza nazionalak: lingala, kikongoa, swahilia eta tshiluba).

Herrialdeari Kongo ere esaten diote; edo, sarriagotan, KED, Kongo-Kinshasa edo Kongoko ED, mugakide daukan Kongoko Errepublikatik bereizteko. Arrazoi beragatik, “Kongo-Brazzaville” ere esaten diote. Herrialdearen izena zenbait aldiz aldatu da XX. mendean: Kongo Belgikarra (1908-1960), Kongo Léopoldville (1960-1971), Zaire (1971-1997) eta, azkenean, Kongoko Errepublika Demokratikoa.

KEDeko erliebea era guztietakoa da, eta landaretza ugaria sabanetan zein

baso sarrietan dago banatuta. 130 milioi hektarea lur ereingarri ditu. KED Ozeano Atlantikotik Afrikako kontinenteko ekialdeko mesetaraino hedatzen da, eta bere zati handiena Kongo ibaiak zeharkatzen du.

Herrialdea independente egin zenetik, elkarren segidako krisi politikoek bere garapena zapuztu dute. Azken krisia 2016. urtearen amaieran hasi zen. Joseph Kabila presidentearen agintaldiko azken urte teorikoan hauteskunderik egin ez zenez, Kabila boterean betikotu da gaur egunera arte, Kongoko oposizioak, gizarte zibilak eta apezpikuek protestaldiak egin arren. Presioaren ondorioz, Kabila presidenteak 2018ko abenduaren 23rako egin behar izan du hauteskundeetarako deia. Neurri handi batean, hauteskunde horien garapenaren edo atzerapenaren eraginpean egongo da etorkizun hurbileneko egonkortasun politikoa.

MUSIKA

MUSIKA KONGOKO ERRITMORA

Hamarkadetan, Kongoko Errepublika Demokratikoak bertako musika kutsatu dio Afrikako kontinentearen gaineratikoari. KEDeko hizkuntza-aniztasuna inspirazio-iturri nagusia da herrialdeko musikari askorentzat. Afrika osoa dantzan jartzen duen musika-adierazpen nagusia soukousa da, hau da, 60ko hamarkadan gaur egungo Kongo Kinshasan eta Kongo Brazzavillen sortutako musika eta dantza herritarra. Izan ere, Kubako rumbaren bertsio afrikarra da. Gaur egun, soukousera egokitutako ndombolo erritmoa oso-oso ospetsua da. Erritmo horretako artista ezagunena Faly Ipupa superrizar kongotarra da. Horrez gain, nazioarteko beste artista batzuk ere badira ezagunak; esate baterako, Maitre Gims edo Yousoupha rap-kantariak. Bestetik, Kongoko talde eta kantari askoren erritmoak gaunditzen ditu mugak: Ferre Gola, JB mpiana, Werrason, Fabregas, Koffi Olomide eta Bill Clinton, besteak beste.



BIODIBERTSITATEA, URA eta LURPEA, bertako aberastasun handiak

Kongoko lurraldearen erdia basoz beteta dago, 45 milioi hektarea, alegia. Tropikoetatik hurbil dagoen gainerako erdian, ordea, sabana da nagusi (mesetak eta goi-lautadak). Lurralde nazionalaren ia-ia %62 basoak dira; eta %10, munduko baso-erreserba tropikalak. Hori dela eta, planetako bigarren baso tropikal handiena da Amazonasen ostean.

Kongoko Errepublika Demokratikoa munduan biodibertsitate handiena daukan bosgarren herrialdea da, eta ugaztun zein hegazti barietate handiena ere badauka. Bertan, 11.000 landare-espezie eta ia-ia 1.000 arrain-espezie identifikatu direnez, funtsezko altxorra da klima-aldaketa erregulatzeko orduan. Besteak beste, elefanteak, gorilak, bonoboak eta okapiak herrialdeko espezie esanguratsuenetakoak dira.

4.700 inguru kilometroko luzera duenez, Kongo ibaia munduko zortzigarren ibai luzeena da. Horrez gain, bigarren emaritsuen ere badenez, segundoko 80.000 m³ ere baditu urtaro batzuetan. Munduko sakonena ere bada, gune batzuetako hondoa 220 metrotik gorakoa da-eta. Kongo tarteka da nabigagarria, baina, batez ere, Kinshasa eta Kisangani artean (2.495 km!). Gaur egun, trenbideak hiru ur-jauzi nagusien gainetik igarotzen dira, eta herrialdeko merkataritzaren zati handiena ibaian zehar egiten da.

Kongoko Errepublika Demokratikoko meatzaritza oso ahaltsua denez, produktu mineralen mosaikoa dela esan daiteke. Haien artean, honako hauexek dira nagusi: diamanteak, kobrea, kobalto, urrea, manganesoa,



zinka, kasiterita, koltana, wolframita, niobioa, germanioa... Lehengai horiek gordinean esportatzen direnez, KEdeko langabezia-tasa oso handia da, baina, aldi berean, lanpostu asko sortzen dira atzerrian. Lehengai horiek produktu erdiekoitzi eta ekoitzi bihurtzeko prozesua herrialdean bertan egingo balitz, bertako aberastasuna zein enplegua handitu eta trafikoen, mafien zein gatazka armatuaren gaur egungo arazoak murriztuko lirateke.

Biodibertsitateak, Kongo ibaiak eta lurpeak emandako aberastasunak aberastasun

Kabila presidentek irekitako krisi politikoaren eta herrialdeko ekialdean, Kasai eskualdean, bizi duten gatazka armatuaren ondorioz, ezegonkortasun ekonomiko larria eta biztanleen bizi-baldintzetarako zailtasun berriak sortu dira.

KED herrialde txiroa da, eta, 188 herrialderen artean, 176. postuan dago Nazio Batuen 2017rako

Kongoko
erritmoa



Giza Garapenaren Indizean. Bertako biztanleen %87,7 txirotasun-lerroaren azpitik bizi dira (eguneko 1,25 dolar), eta desberdintasunak oso-oso nabariak dira, herrialdeko aberastasuna ugaria bezain anitza den arren. Gutxi gorabehera, emakumeen %44k ez dute diru-sarrerarik. Malnutrizioa txirotasunaren adierazgarri da, eta emakumeen zein neska-mutilen %30-%50en dauka eragina. Herrialdeak bizi izan dituen eta gaur egun bizi dituen era guztietako gatazken ondorioz sortutako egoera ez ezik, batez ere neska-mutilen eta emakumeen artean eragin handia daukaten eskubide-urraketak ere hartu behar dira kontuan.

Herrialdeko osasun-testuingurua oso-oso larria da (bost urtetik beherako umeen %43k desnutrizio kronikoa dute, urtero 160.000 ume hiltzen dira, biztanleen %50ek baino ez dute ur-iturria eskuratzeko aukerarik, %18k baino ez dute saneamendu egokia...). Gaixotasun ohikoenak tuberkulosia, malaria, beherakoa, sukar tifoidea eta kolera dira, eta guzti-guztiak saneamendurako zein higienarako prozesuak ez egoteagatik sortzen dira.

Hezkuntzari dagokionez, estatuak horren kostuaren %22 baino ez du hartzen bere gain. Hori dela eta, familiek gainerakoari aurre egin behar diote, gizarte horretan gazteen langabezia eta familien bizi-maila nagusi direnean. Lehen Hezkuntzan, neska-mutilen %80 eskolara joaten badira ere, ehuneko hori murriztu egiten da hazten diren neurrian. Horren ondorioz, mutilen ehunekoa %50era jaisten da; eta neskena, %47ra, nagusiagoak direnean.



Mas información en: <http://www.itakaescolapios.org>